



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ALDATU EGIN DABE BATZORDEAN EKINTZAILETZARAKO PROIEKTUAK FINANTZATZERA ZUZENDUTAKO FUNTSETARAKO ZERGA TRATAMENTUA

- **Osokoak berresten badau, PFEZn jasoko dan aldaketak %50eko salbuespena izango dau**

(Bilbon, 2020ko martiaren 5ean). Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordeak argi berdea emon deutso oinarri teknologikoa daukien enpresen ekintzailtzara zuzendutako inbertsino funtsen kudeatzaileen Persona Fisikoen Errentaren ganeko Zerga (PEFZ) tasaren aldaketari. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Bereziak (PP) onetsi daberen aldaketaren helburua finantzen arloan dabilzan enpresa horreek erakartea da “Brexitari begiratuta, batez be”, eta “%50eko salbuespena” jasoten dau, EBko beste herrialde batzuekaz “lehiatzeko”, Foru Gobernua eusten daberen taldeek azaldu dabenez. Aldaketea Osokoak berretsi beharko dau.

“Preminazko” izaerea daukan ekimena, testuak adierazoten dauenez “jarduera ekonomikoaren ganeko ekintzailtzagaz, barrikuntzagaz eta garapenagaz erlazionautako” funtsen kudeaketan parte hartzearen ondoriozko ordainketa moduan jasoten diran euki ekonomikoko eskubide bereziek PFEZn daukien zerga tratamendu “espezifikoa” ezarten dauen foru arau proiektuan dago araututa.

Ordezkarri jeltzaleek eta sozialistek adierazo dabenez, salbuespenak “ez dau eraginik izango” une honetan Bizkaian dagon ezein funtsetan, lurraldera etorriko diran eta ekintzailtza teknologikoa finantzatzera zuzenduta dagozan barrietan baino.

EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek osotasuneko zuzenketa-eskeak aurkeztu ditue, euren eretziz neurriak ez dauelako eragin ekonomiko positiborik izango Bizkaiko produktino egituran. Zuzenketa-eske bietako bat be ez da onartu. Talde biek, zuzenketa-eske parzialen bitartez, muga kuantifikauak ezartea eskatu dabe: 150.000 eurokoak, talde morearen proposamenean; eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

100.000 eurokoak, EH Bildurenean. Eneritz de Madariaga talde morearen bozeroaleak, “epe laburreko irabaziak” bilatzen dituen “finantza arloko marraixuei atea edegiten jakela” salatu dau. Aldaketea “arinegi eta bat-batean” egin da, gehitu dau EH Bilduko Arantza Urkaregik, eta ez dau aurkitu preminazko tramitaziorako justifikaziorik. “Esperpento” hori “errenta altuenen mesederako izango da”, esan dau.

Ekain Rico sozialistaren eretziz, gaur ekarri dan arauak “ez dauka ezelango zerikusirik” igaz planteau zan eta bere taldeak baztertu ebanagaz. Adierazo dauenez, oraingoaren helburua “kalidadeko enpleguak eta zergadun barriak erakartea” da, eta kritikau egin ditu oposizino taldeen jarrerak, gai hori Gipuzkoan kontrako boto eta zuzenketa-eske barik eta Araban Podemosen zuzenketa-eske barik arautu zalako.

Arauzko aldaketaren helburua “inbertitzaileen eta ekintzaileen arteko loturak indartzea” da, eta onartuko ez balitz “desabantaila nabarmena” eragingo leuke Europako beste herrialde batzuen aurrean, oso une “egokian”, Brexitean, hain zuzen be, gehitu dau Jane Eyre Urkieta jeltzaleak.

Batzorde berean, EH Bilduko kontrako botoakaz, beste foru arau proiektu bat onetsi da, Soziedadeen ganeko Zergea Europako Batzordeak 2019ko urtarrilaren 8an hartutako Erabagira egokitzeko asmoz. Bertan ezarten danez, zerga hori ordaintzetik salbuetsita egozan Espainiako Portu Agintariak, ordaindu egin beharko dabe. Europako erakundeak ezarri ebanez, zerga hori, azpiegituran egiten diran inbertsinoen gastuen ondoriozko kuotaren murrizketeagaz ordainduko da.

HERRI-DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUAREN BILEREA

Beste alde batetik, Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, Unai Rementeria Ahdun Nagusiak, joan dan zezeilaren 13an egin zan Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren bileraren eukiaren barri emon dau. Bertan, Foru Aldundiek kontzertautako zergengaitik izan eben bilketa finkatua onetsi zan. 15.469,6 milioi eurokoa izan zan, hau da, aurreko urtean baino %3,3 gehiago. Kopuru horren %59,7 Bizkaian batu zan, hau da, 7.995.116 euro, 2018ko kontuetan baino %1,6 gehiago.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Zergen ondoriozko diru-sarrerak zehaztu ostean, Bizkaiak Doikuntzako Funts Orokorrari eta Ez Ohiko Funtsari egiten deustan ekarpena azaldu dau Rementeriak. Horreetan, lurraldearen ekarpena 20,7 milioi eurokoa eta 1,4 milioikoa izan da, hurrenez hurren. Funts horreen onuradunak alboko lurralde biak izan ziran.

Larrialdien finantzaketarako erakundeen arteko funtsari jagokonez, Ahaldun Nagusiak jakinarazo dau joan dan zezeilaren 21ean lehenengo bilera teknikoa izan zala, eta Aldundiak 75 milioi euroko gehieneko zuzkidurea proponidu ebala barriro. “Larrialdi horreek zeintzuk diran zehaztu behar da”, esan dau, eta horren ostean, “ahalik eta arinen” martxan jarri gura dala baieztu dau.

PP taldetik, Eduardo Andradek Ekarpenen Legea atoan barrikusteko eskatu dau, une honetan Eusko Jurlaritzaren “larregizko finantzaketea” dagolako. Elkarrekin Bizkaia taldetik, bozeroaleak esan dau Bizkaiak “Europa osoko zerga presino bajuenetakoa” daukala, eta EH Bildugaz batera, Soziedadeen Zergaren diru-bilketea “%17,5” txikiagoa izatearen ganeko azalpenak eskatu ditu. “Jaitsierea enpresek 2018an kontura egindako entregaren ondoriozkoa da. Kuota diferentzialak erakusten dauenez, 2019an kopuru bera batu dogu”, erantzun dau Rementeriak.

2020ko urte honi begira, Ahaldun Nagusiak “zuhurtziagaz jardutea” eskatu dau, “kanpoko faktoreek eragina eukiko dabelako diru-bilketan” –koronabirusa eta Estatu Batuetako presidentea aukeratzeko hauteskundeak aitatuz–.

EZ DA ALOKAIUAREN PREZIOAN NEURRIAK APLIKETAKO ADOSTASUNIK LORTU

Beste alde batetik, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia taldeen kontrako botoakaz eta Elkarrekin Bizkaia taldearen aldekoakaz, batzordeak ez dau onartu etxebizitzaren alokairuaren prezioa murrizteko neurriak eskatzen eban EH Bilduren arauz besteko proposamen bat, parke publikoa handituz, hutsik dagozan etxebizitzak mobilizauz eta alokairurako prezio murgatuak ezarriz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBAN EN COMISIÓN LA MODIFICACIÓN DEL TRATAMIENTO FISCAL PARA FONDOS DESTINADOS A FINANCIAR PROYECTOS DE EMPRENDIMIENTO

- **El cambio en el IRPF, de ratificarse en pleno, contendrá una exención del 50%.**

(Bilbao, a 5 de marzo de 2020). La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado luz verde a la modificación del tipo del Impuesto de la Renta sobre las Personas Físicas (IRPF) de los gestores de fondos de inversión dedicados al emprendimiento de empresas de base tecnológica. Este cambio aprobado por Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupo Mixto (PP), pretende atraer a estas empresas financieras, “principalmente con la vista puesta en el Brexit”, y contiene “una exención del 50%” para “competir” con otros países de la UE, según han explicado los grupos que sustentan al Gobierno foral. El cambio deberá ser ratificado ahora por el pleno.

La iniciativa normativa con carácter de “urgencia” está regulada en un proyecto de norma foral que establece un tratamiento tributario “específico” en el IRPF “de los derechos especiales de contenido económico que se perciben como retribución de la participación en la gestión de fondos vinculados al emprendimiento, a la innovación y al desarrollo de la actividad económica”, según el texto.

Los representantes jeltzales y socialistas han asegurado que la exención “no afectará” a ningún fondo actualmente instalado en Bizkaia, sino únicamente a los nuevos que se ubiquen en el territorio y estén dedicados a financiar el emprendimiento tecnológico.

Los grupos EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han presentado sendas enmiendas a la totalidad, que han sido rechazadas, por entender que la medida no tendrá un impacto económico positivo en el tejido productivo de Bizkaia. Ambos han pedido, a través de enmiendas parciales, que se establezca unos límites cuantificados: de 150.000 euros, según ha propuesto el grupo morado; y de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

100.000 euros, en el caso de la de EH Bildu. La portavoz del grupo morado Eneritz de Madariaga, ha denunciado que “se abra la puerta a tiburones financieros” que buscan “el beneficio a corto plazo”. La modificación es “precipitada e improvisada” ha añadido Arantza Urkaregi, de EH Bildu, quien no ha encontrado justificación para su tramitación urgente. Este “esperpento” va a “hacer un favor a las rentas más altas”, ha dicho.

Para el socialista Ekain Rico, la norma traída hoy “no tiene nada que ver” con la que se planteó el año pasado y que fue rechazada por su grupo. Ha sostenido que la de ahora “pretende atraer empleos de calidad y nuevos contribuyentes” y ha criticado las posturas de los grupos de la oposición cuando este asunto se reguló sin votos en contra ni enmiendas en Gipuzkoa, y sin enmiendas de Podemos en Araba.

La modificación normativa quiere “potenciar conexiones entre inversores y emprendedores” y de no aprobarse supondría “una clara desventaja” respecto a otros países europeos en un momento “idóneo” como es el Brexit, ha añadido la jeltzale Jane Eyre Urkieta.

En la misma comisión, se ha aprobado, con el único rechazo de EH Bildu, otro proyecto de norma foral que adapta el Impuesto de Sociedades a la decisión de la Comisión Europea del 8 de enero de 2019, que determina que las Autoridades Portuarias españolas, que estaban exentas del pago de este tributo, deberán abonarlo. Según estableció el organismo europeo, dicho impuesto se pagará con una deducción de la cuota por gastos de inversión en infraestructura.

REUNIÓN DEL CONSEJO VASCO DE FINANZAS

Por otro lado, en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, el Diputado general, Unai Rementeria, ha dado cuenta del contenido de la reunión del Consejo Vasco de Finanzas celebrado el 13 de febrero, en donde se aprobó la recaudación consolidada por tributos concertados de las diputaciones forales de 2019, la cual ascendió a 15.469,6 millones de euros, lo que supuso un incremento interanual del 3,3%. El 59,7% de este montante se recaudó en Bizkaia, es decir, 7.995.116 euros, lo que supuso un aumento del 1,6% sobre las cuentas de 2018.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Después de detallar los ingresos por tributos, Rementeria ha explicado la contribución de Bizkaia al Fondo General de Ajuste y al Fondo Extraordinario. En estos, la aportación del territorio se cifró en 20,7 millones de euros y en 1,4 millones, respectivamente. Los beneficiarios de ambos fondos fueron los dos territorios vecinos.

En cuanto al Fondo interinstitucional para la financiación de emergencias, el diputado general ha informado de que el pasado 21 de febrero se produjo la primera reunión técnica en la que la Diputación volvió a proponer una dotación máxima de 75 millones de euros. “Hay que detallar cuáles son esas emergencias”, ha dicho, para después confirmar que se quiere poner en marcha “lo más pronto posible”.

Desde las filas del PP, Eduardo Andrade ha pedido que se revise ya la Ley de Aportaciones, ya que ahora se da una “sobrefinanciación” del Gobierno vasco. Desde Elkarrekin Bizkaia, su portavoz se ha quejado de que Bizkaia cuenta con una presión fiscal “de las más bajas de Europa” y ha pedido, junto a EH Bildu, explicaciones por la bajada de la recaudación en un “17,5%” del Impuesto de Sociedades. “Es consecuencia de la entrega a cuenta de las empresas en 2018. Según la cuota diferencial, en 2019 hemos recaudado lo mismo”, ha respondido Rementería.

De cara a este año 2020, el diputado general ha pedido “actuar con prudencia”, ya que “factores externos” -citando el coronavirus y las elecciones presidenciales en EE UU- “se reflejarán en la recaudación”.

SIN CONSENSO PARA APLICAR MEDIDAS EN EL PRECIO DEL ALQUILER

Por otro lado, con los votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupo Mixto, y con el apoyo de Elkarrekin Bizkaia, la comisión ha desestimado una proposición no de norma de EH Bildu en la que se pedían medidas para reducir el alquiler de la vivienda, mediante la ampliación del parque público, la movilización de las viviendas vacías y precios limitados para el alquiler.